


erdiko kainera



Parentesien ostean bildu gara bosgarrenez Bizkaiko Txapeldun denarekin. Gu ta Gutarrak proiektuarekin plazaz plazako ibileran parentesia egin zuen iaz. Gabonetako parentesiak finalaren zurrumbiloa barealdira ekartzen lagundu dio. Bere ibilbidearen gailur eta zuloez, bere bertsokeraren gakoez eta bertsoaritzako indar eta inertziez hitz egin du.

Igor Elortza

«Tarteka plazaz plazako zirkuitutik distantzia hartzea beharrezko da»

ESTITXU EIZAGIRRE

Argazkiak: Dani Blanco

Zer momentutan iritsi da bosgarren txapela?

Nire ibilbidea bertso eskolan hasi eta plazan leku bat goiz xamar lortu zuen belaunaldia-rena da. Nire zero puntua 1990eko Bizkaiko Txapelketan kokatuko nuke: Unai Iturriaga eta biok 15-16 urterekin finalean sartu ginen, Bizkaiko bertso gintzan hutsune bat zegoelako. Lopategi, Amuriza, Azpillaga, Mugartegi, Enbeita... belaunaldi hori Euskal Herriko gorengo mailan zebilen, baina hortik aurrera hutsunea zegoen, Txiplasek, Arriolarrek, Respaldizak eta Aritz Lopategik betetzen

zutena. Final horrekin bete betean sartu ginen bertso plazetan, bertsolari izatea zer zen jakin barik, dezenteko ardura batzuk hartzen, jende nagusiarekin plazaz plaza kantuan... Horren ostean, eta hau ere gure belaunaldikoen ezaugarria da, krisi gogor xamar bat etorri zitzaidan. Inertzia batean zabitza, eta hori lotzen da bertso mailaren utzikeriarekin... eta zelango edo halango porrota heltzen da: 1997ko Txapelketa Nagusiko finalera sartu ziren nire belaunaldiko hainbat, eta ateetan geratzeak kolpea

eragin zidan: “izan gura duzu edo ez?” esanarazi zidan. Horri lotuta etorri zen Bizkaiko 1998ko txapelketa, neure buruari banintzela erakutsi beharrarekin joan nintzelako. Ordutik honako ibilbidea kontzientzeara dela esango nuke.

Azken urteotan etorri dira Euskal Herriko finalak, Bizkaiko hainbat txapel, plaza asko, Gu ta Gutarrak... Momentu honetan ikusten dut bertsoak egiteko inoizko gaitasun handiena daukadala. Eta plazatan eta txapelketetan hainbeste urtez aritzeak halako patxada ematen du bertsoan egiterakoan. Baina aldi berean ikusten dut, eta hau agian belaunaldi osora zabaldu daiteke, momenturik onenean nagoela neure proposamenak plazaratzeko. Hori egiteko ardura ere sentitzen dut, eta nahi ez dudana da inertzia batean ibiltzea. Plazaz plaza funtzio sozial oso garrantzitsua betetzen dugu eta gure indarraren zati handi bat hor dago, baina batzuetan hortik distantzia hartzea ere behar da, norberaren barruan zer grina dauden jakiteko.

Gu ta Gutarrak hartu duzu distantzia.

Bertso musikatu horiek egiteko arakatu egin dugu geure barruan zeri buruz gura genuen kantatzea, zer tonotan... Gaiak ez dira inongo berrikuntza, estiloa ere ez, baina plazaz plazako ibilian zehazki landu ezin izan ditugun gaiak dira, edo bat-batekotasunak ematen ez duen zehaztasunarekin landu ditugunak. Bertso jarrien eremua alde batera utzita daukagu, eta bide interesgarria da. Horrez gain, beste diziplina batzuetako jendearekin oholtza konpartitu dugu, baita afa-ritako mahaia ere, ardurak... Ikusi dugu gure kezkak ez direla gureak bakarrik. Hori dena ere oso garrantzitsua izan da, eta bertsoan iritsi ez garen hainbat lekutara iritsi gara.

Publikoarekiko harremana aldatzen da bertsolari edo “rockero” agertuta?

Ez, eremu hori mimoz zaindu dugulako. Horretan 7 Eskalerekin ez genuen beharba-da hainbeste asmatu. Oraingoan gehiago

flipatu dute musikariek. Gure tratua oso bertsolari ibilbidekoa izan da: antolatzaileekin afaldu dugu, ez gara managerrekin ibili... Diferentea dena da, jendaurrera egindako proposamen batekin agertzea edo bat-batekotasunarekin. Urte eta erdi honetan bertsoan aritu gara plazatan, baina oso gutxi, agenda Gu ta Gutarrak-ek bete digulako. Hasieran, bertso plazatan kokatzen kosta zitzaidan. Batetik, inoren menpe ibiltzera itzuli beharra zegoelako

—orain altxa eta orain jarri, eta orain zara ez dakit nor...—. Eta bestetik, bat-batekotasunaren beraren inperfekzioagatik. Ni, gainera, berez nahiko perfekzionista naiz. Bestea oso landua da, mimo handiz egindakoa, eta gainera behin frogatuta ikusten duzu funtzionatzen duela: bagenekien non zituen bere momentu pisutsuak, baina batez ere bukaera aldera oso gora egiten zuela. Bat-bateko saio batean puntu gorena agian bigarren gaian dago, eta azkenera iristen zara ez dakit zelan. Baina hor du, era berean, bere alde polita.



Bertsoan zer da zuretzat gozamena?

Bat-batekotasunak misterio hori du, gutxien espero duzunean sortzen da txispa. Niretzat

gero eta gauza garrantzitsuagoa da oholtza konpartitzen dugunen arteko konplizitatea, baina hori bera inertzia bihur daiteke, eta arriskutsua da. Garrantzitsua da miresmen artistiko puntu bat, eta intentziotan afinitate bat egotea, nahiz estilo desberdineko artistak izan. Bertsoaren balio estetikoari garrantzi handia ematen diot. Baina konturatzeko naiz urte batzuetan horrekin obsesionatuegi egon naizela eta txispa pizteko hori baino garrantzitsuagoa dela sarritan oholtzakideekin duzun harreman sarea, eta aurrean duzun publikoarekin duzuna, edo momentuan dagoen herri giroa...

Aurreko Bizkaiko Txapelketan ez zenuen parte hartu. Posible da txapelketan parte hartu gabe plazetan lekua izatea?



Izarren hautsa

“Aspalditik neukan doinua erabiltzeko ideia. Melodikoki indar eta oihartzun handia du. Eta Maialen Lujanbiok hasi zuen joera narratibo horretarako egokia iruditzen zitzaidan, duen erritmoagatik. Baina behin eta berriz errepikatzen diren doinu hauek erritmorik bakoak iruditzen zaizkit, *continuum* sentsazioa sorrarazten didate. Horregatik gehitu nahi nion errima jokoa, estetikoki belarriarentzat ederra delako, baita erritmoa apurtzeko ere. Baina ez nuen puntu motz horiek harridura-esaldi solte izatea nahi. Eutsi nahi nion kantuaren hitzek duten jarraikortasun horri. Doinua fintzen Unai Iturriaga, Beñat Gaztelurrutia eta Unai Esturorekin aritu nintzen. Jarri diogun bukaera Laboaren beste kanta batena da, *Sorterriko koblakena*”.

Iturriaga eta bion kasuan, plazaz-plazako ibilitik parentesi hori egitea pentsatutakoa zen. Plaza-plazako inertzia apurtzeko gogoia lehenagotik genuen, azken Euskal Herriko Txapelketan jada erabaki genuen hurrengo Bizkaikoan ez parte hartzea, “7 Eskaleren antzeko zerbait” egiteko.

Badira izen batzuk esaten dutenak posible dela: Peñagarikano plazan asko dabil, Lizaso bat ere bai, eta azken txapelketetan *pole positionari* dagokionez emaitza onegirik jaso ez duen Irazu asko dabil plazan. Eragina beti dauka, ez dago dudarik. Jende berria agertu ahala beste batzuek desagertu beharra daukate.

Nik aurtengo Bizkaiko Txapelketan ez dut izan beldur larregirik. Ez dut uste demostratu behar dudarik txapel bat janzteko kapaz naizenik. Erakutsi behar dudana da nire bertso ibilbidean koska bat gartzaren ari naizela. Ibilbide bat daramazunean, hainbatetan erakutsi duzunean hor ibiltzeko maila duzula eta bertsozaleek zure bertsoakera eta nortasuna ezagutzen dutenean,

ez dut uste hain garrantzitsua denik. Baina oraindik plazarik egiten ez duenarentzat ezinbestekoa da, eta behin baino gehiagotan frogatu ez duenarentzat ere izan liteke.

Zure bertsozaintzan koska hori zein izan da?

Batetik arduratuta nengoen grina puntu bat falta nuelako, denbora bat bazen betiko diskoak entzuten nituena, zinera oso gutxi joaten nintzena, libururik ganoraz irakurtzen ez nuena... Sortzeko grina hori elikatzen saiatu naiz, baina hori zuzenean bertsoekin lotzea arriskutsua da, ez dut horrelako ezer egin –liburu bat irakurri eta hurrengo saioan ez dakit zer egiten saiatu–.

Betiko eztabaida famatu bat bada, forma eta edukiarena. Nire ustez txarto planteatua dago debatea, bi berba horiek hartu izanagatik. Nik zeresana eta esateko modua deitzen diet, eta niretzat garrantzitsuena zeresana da, baina esateko modua ezinbestekoa da. Zeresana eduki dezaket planetaren berokuntzaz, baina horrekin egin nezake mitin bat, ipuin bat, laburmetrai bat, edo bertso bat. Adierazpen bakoitzak bere baliabideak dauzka, horrek beti erakarri nau eta horretan ere egin dut ahalegina. Lanketa modu hau ustez zehatzagoa da bestea baino, baina modu intuitiboan egin behar da lan hori ere, errima zerrenda bat ez baita hoshikideak diren hitzen zerrenda bat bakarrik: hitz abstraktuak edo zehatzak erabiliko dituzun erabakitzen ari zara, sintaxi mota bat definitzen, mundu erreferentzial bat adierazten... Doinu eta metrikarekin beste hainbeste.

Bizkaiko bertsozaintza nola ikusten duzu?

Bizkaiko bertsozaleetan badago asko dakien jendea, baina bere burua ez dauka aditutzat. Guretzat oso entzule ona da, ez delako bertsolaria neurtzen egoten.

Bertsolarien aldetik, berriz, orain egoera nahiko sendoa ikusten dut, finala da horren erakusgarri. Hiru belaunaldi geunden ohol-tza horretan. Gure belaunaldian, jende batek “gora” iristea lortu ez zuenean, nahiko arin utzi zuen bertsolaritza. Hurrengo belaunaldietakoek, ostera, euren zirkuituetan jarraitu dute. Hori osasunaren adierazle da, jende horrek bere inguruan saioak egiten dituelako, gozatu egiten duelako bertsoetan, eta denborarekin euren maila hobetu egin dutelako. Eta atzetik gaztetxoagoak ere badatoz.

Lurraldeari begiratuta, zabaltzen ari gara: Enkarterrietan bertso eskolak martxan ari dira eta aurtun lehen aldiz egin da eskualde horretako txapelketa. ■

www.argaia.com/multimedia
helbidean, elkarrizketaren bideoa.